

LABURAREN



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Kepa Junkera, SGAEk emandako oroigarriarekin.

MUSIKA

Urrezko Diskoa jaso du Kepa Junkerak 'Maren' azken diskoak lortutako salmentengatik

Kepa Junkera musikariari Urrezko Diskoa eman zioten atzo, Bilboko Euskalduna jauregian egindako ekitaldian. Artista bilbotarrak EMI disketxearekin kaleratu zuen *Maren* azkeneko lanak izandako salmenta onengatik jaso du saria. Disko horren grabaziorako munduko musikari eta abeslari ezagunen kolaborazioa izan zuen Junkerak: Glen Velez, Ibon Koteron, Frederic Manoukian eta Maria del Mar Bonet, besteak beste. Urrezko Diskoaren kariatara, maiatzaren 4an, iluntzeko 21:00etan hasita, kontzertu berezia eskainiko du Junkerak Euskalduna jauregiko auditorioan.

ARTEA

Txillidaren artelanak Amerika eta Europako zortzi hiritan paratuko dituzte urte honetan

Eduardo Txillida eskultoreak egindako lanak Amerikako eta Europako zortzi hiritara eramango dituzte aurtten. Zortzi erakusketok ezberdinak izango dira, baina Txillidaren informalismo abstraktua islatuko da guztietan. Horietako bat Monterreyko (Mexiko) Arte Garaikideko Museoan dago oraintxe, eta uztailen Mexikoko hiriburura eramango dute. Valentzian, Salamankan, Belgikan eta Alemanian ere izango dira.

MUSIKA

Messiaenen 'Turangalila sinfonia' eskainiko du BOSek gaur eta bihar

Kontzertu denboraldiaren barruan, Bilbao Orkestra Sinfonikoak O. Messiaenen *Turangalila sinfonia* joko du gaur eta bihar, Euskalduna jauregian, 20:00etatik aurrera. Juanjo Menaren zuzendaritzapean, BOSeko musikariekin batera Igor Roma piano jotzailea eta Valerie Hartman-Claverie martenot uhina jotzailea ariko dira. *Turangalila sinfonia* 1949an estreinatu zuen Bernsteinek Bostonen.

MUSIKA

Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoak Donostian eta Bilbon joko du egunotan

Gaurtik eta etzira bitartean, hiru kontzertu emango ditu Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoak. Donostia-ko Kursaal Auditorioan bi emanaldi egingo ditu, gaur eta bihar, 20:00etan. Larunbatean, berriz, Bilboko Euskalduna jauregian izango da. Egitaraua Mozarten *Piano eta Orkestrarako 25. Kontzertua*-k eta Beethovenen *Eroica*, 3. sinfonia-k osatuko dute. Zuzendari gisa, Salvador Mas katalana ariko da.

ARKEOLOGIA

Amenophis III faraoiaren bi estatua handiren zatiak aurkitu dituzte Luxor inguruan

Egipto eta Alemaniako arkeologo talde batek Amenophis III faraoiaren bi estatua handiren zatiak aurkitu ditu Luxor hiriaren inguruetan, Egipto Garaian. Egiptoko faraoien 18. dinastiakoa izan zen Amenophis (Kristo aurreko 1408-1372). Aurkitutako bi estatuak haren hilobiaren bigarren eraikinaren sarrean jarrita zeuden, eta 21 metro luze eta 700 tonako pisua zuen bakoitzak.

KRITIKA MUSIKA

Jesus Mari Begoña

Aranbarri oroitzuz

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Zuzendaria: Juanjo Mena. **Mezzosopranoa:** Itxaro Mentxaka. **Egitaraua:** Jesus Aranbarriren lanak. **Lekua:** Arriaga antzokia. **Eguna:** Apirilak 13.

Orain dela 100 urte Jesus Aranbarri bilbotar musikaria jaio zela eta, igaro den astean bertako musika eragileek merezitako bi kontzertu eskaini zizkiguten maisuaren oroimenez.

Asko egin zuen Aranbarrik Bilbo musikaren alde: 1926an Bilboko Udal Bandaren zuzendari izateko oposizioa irabazi zuen. Horregatik Udalak maisuaren ondorengoak omendu nahi zituen eta bide batez haren musika ere. Baina Jesus Aranbarrik zerikusi gehiago zuen Filarmonika Elkartearekin eta Bilboko Orkestrarekin. Horren ondorioz Bilbao Orkestra Sinfonikoak eta Filarmonikak Api-

rilaren 13an, musikariaren urtebetetzean, pareko omenaldia, behar bada barrukoagoa eskaini zioten Juanjo Menaren batu-tapean.

Hasierako *Lau Impromptus*, 1930an asmatutako lau pieza labor eta gutxi ezagutuak, jo zuen berotu gabe gure orkestrak. Ipuin batentzako eginda dago 1931. urteko *Gabon Zar Sarginak* izeneko Preludioa, alaia eta euskal doinu herrikoietan inspiratua. Beste batzuetan jotako *In memoriam. Elegia* orkestrarako lana fintasunez jo zuten musikariek.

Orkestra eta abeslaria ondo

Bere emazteari eskaini zizkion konpositoreak biribil lortutako *Zortzi euskal kantutak*, Resurreccion Maria Azkue eta Aita Donostiaren kantutegietatik aterata eta maisuki orkestratuak. Itxaro Mentxaka lekeitiar mez-

MEREZITAKOA

Aranbarrik asko egin zuen Bilbo musikaren alde, eta ondo merezitako omenaldia jaso zuen

zosopranoak ahots indartsuarekin, ziur eta eder abestu zituen, tinbre beroa eta erdiko erregistro polita erakutsiz halaber.

Kontzertuaren azkenean errepikatu zuen *Amak ezkondu ninduen* barregarria eta 1946ko egun batean idatzitako *Eskaintza Fallari*, konpositore ona hil bezain laster haren omenez egindako lana. *Hego haizea* izeneko zartzuelaren Intermedio onarekin bukatu zuen, bikain, orkestrak maisu zenari egin beharreko omenaldia. Euskal musikarentzat hobeto.



abonoen informazioa eta informazioa.

944 792 036

1 **Mesías**

Steven Berkoff-en antzezlanak
José Luis Gómezek zuzendua
TEATRO DE LA ABADIA konpainia

Apirilak 25tik 28ra

Steven Berkoffek Jesus Nazarethekoaren bizitza eta heriotzari buruz idatzitako obra erradikal eta eztabaidagarria

2 **Macbeth**

William Shakespeare
Dramaturgia eta Zuzendaritza:
Calixto Bieito

Maiatzak 9tik 12ra

LA CRÍTICA:
EL MUNDO: TRANSGESOR Y VITAL
ABC: LA VIDA EN DIRECTO
EL PAÍS: UN SHAKESPEARE DEMOLEDO
EL PERIÓDICO: INTERESANTE Y RADICAL SABOTAJE

3 **Besos**

Carles Alberola eta Roberto Garcíaena
ALBENA TEATRO

Maiatzak 29tik Ekainak 5ra

Dibertigarria, irudimen handikoa eta kutsakorra den ikuskizun honekin ziurtaturik dago dibertsioa.

12€ / 36€

hartzu hiru eta bi ordaindu

Abonoen Prezioa, Ikuslearen Egunak barne.

ANTZERKIKO

ABONOA 3

ARRIAGA



